

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Zaborren tasaren 2020ko laugarren hiruilekoko errolda

2020ko laugarren hiruilekoko zaborren tasaren errolda jendaurrean dago, hamabost egun baliodunetz, ediktu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten aztertu eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak edo iradokizunak aurkezteko.

Alegaziorik aurkezten ez bada zaborren tasaren erroldaren aurka jendaurreko 15 egun baliodunetan, ordaintzeko epea hasiko da.

2020ko abenduaren 31tik 2020ko otsailaren 28ra bitarteko egun baliodunetan (biak barne) ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, zaborra biltzeko zerbitzuaren 2020ko laugarren hiruilekoko ordainagiriak.

Zerga horren eraginpeko zergadunek udalaren diruzaintzan egin ahal izango dute ordainketa, adierazitako epean, 10:00etatik 14:00etara.

Era berean, zergadunei gogorazten zaie ordainketa banku edo aurrezki kutxetan helbideratu ahal dutela.

Epe hori igarotakoan, premiamenduko betearazte bide administratiboa abiaraziko da, hala xedatzen baitu indarrean dagoen Zergabilketa Arautegi Orokorrak, eta ehuneko bosteko errekaruarekin kobratuko dira ordaindu gabeko kuotak; errekaru hori bateragarria da luzapen errekaruarekin.

Dagozkion ondorioak izan ditzan jakinarazten da.

Agurain, 2020ko azaroaren 11

Alkatea

ERNESTO SAINZ LANCHARES